

Okupazioa, kolonizazioa eta gure estatuaren desagitea

Gaur egun *kolonialismo* hitza oso gutxi entzuten den kontzeptua da. *Kolonialismo* hitza erabiltzen denean, garai historiko konkretu bati egiten zaion erreferentzia dela dirudi, eta ez da kasualitatea. *Kolonialismo* hitza ez erabiltzea okupatua dagoen eta hiltzear dagoen herri baten ezaugarri bat da. Ez du bere egoera larria ikusteko gaitasunik, eta etsaiaren zapalkuntza egoera normalizatutzat hartzen du. Baina zer da kolonialismoa?

Kolonialismoan, estatu zapaltzaileak zapaldua desagerraraztea du helburu nagusitzat. Menpean hartzen duen estatuaren kultur, hizkuntza, nortasun, identitate ezaugarriak behin betiko desagerrarazi nahi ditu indarraren bidez, berea inposatuz. Hori guztia aurrera eraman ahal izateko, jendea hil, atxilotu, espetxeratu eta erbesteratzen dute. Lurraldea zatitzen dute, kolonoak ekartzen dituzte, beren hizkuntzaz eta kulturaz bertakoa desagerrarazteko. Bertako hizkuntza eta kultura debekatzeko dira. Eraikitako erakunde eta egitura guztiak deusezten eta bereganatzen dituzte, eta zapalduari bereak direla sinetsarazten.

Gurean, mendeetan iraun duen egoera inperialista eta kolonialistak bere fruituak eman dituen arren, estatu zapaltzaileek ez dute lortu gure herria hiltzea. Larriki zaurituak gaude, baina bizirik jarraitzea lortu dugu gaurdaino.

Munduan izan diren kolonizazio prozesu guztietan hiru etapa bereizi izan ohi dira, eta Nafarroa ez da salbuespena izan. Hiru etapa deskribatzen diren arren eta hasieran modu berezian eman daitezkeen arren, hirurak elkarri lotuak daude eta modu “zirkularrean” gertatzen direla esan genezake. Hau da, ez da bat amaitzen eta bestea hasten, batak bestea elikatzen baitu, etenik gabe. Guztien oinarrian zapaltzailearen biolentzia eta jazarri zaion herriaren beldurra daude.

Aipaturiko hiru etapak honakoak dira:

- Lehenik eta behin, fase MILITARRA. Fase hori oso bortitza izaten da. Zapalduko herriak ongi bereizten du zapaltzailearen papera. Beldurra eta izua barneratzen dira eta jazarpenari aurre egiten dion edonork badaki espetxeratua, erbesteratua edo hilik buka dezakeela. Fase honetan izandako bizipenak belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira eta jazarpenak eragindako edo barneratutako jarrerak “normaltasunez” bizitzen hasten dira. Puntu horretan, bigarren etapa hasiko litzateke: instituzionalizazioa.
- INSTITUZIONALIZAZIOA. Etapa hau ez da aipaturikoa bezain bortitza. Oinarrian bortizkeria dagoen arren, ez da hain agerikoa. Zapaltzaileak bere legeak ezartzen ditu. Guztiak, zapalduko herriaren ezaugarriak eta existentzia desagerraraztera bideraturik. Legedia ez betetzeak ondorio larriak izan ditzake herritarrengan. Oinarrian, berriz diot, mehatxua eta beldurra nagusitzen dira. Indarrez ezarritako legeak obeditu eta betetzeaz, indar militar okupatzaileak arduratuko dira. Biolentzia militarra baita zapaltzailea babesten duena. Kolonoek ez dute inongo beldurrik izango, legedia eta indar militarra beti alde izango baitituzte. Beren hizkuntza,

ohiturak, ospakizunak indarrez ezartzen dituzte eta pixkanaka barneratuz doaz herri zapalduan. Momentu horretan, hirugarren etapa sartzen da.

- GEZURRA ETA MANIPULAZIOA. Fase honetan, estatu zapaltzaileak bere makineria guztia martxan du. Historia garaileek idatzi ohi dute eta haiek beren krimena beti ezkutatu dute. Hitzarmenak izan direla esango dute, inoiz ez biolentziaz kenduriko askatasuna. Hori guztia ondo barneratu ahal izateko, ezinbestekoa da hezkuntza sistemak eta komunikabideek beraiek ezarritako egia bakarra behin eta berriz kontatzea. Datozen belaunaldi berriek ez dezaten beren herriarekiko, hizkuntzarekiko eta kulturarekiko inongo atxikimendurik sentitu, ez dezaten eraso moduan bizi egunerokoa jasaten duten zapalkuntza. Ezarritako sistema horren konplize bilakatzen dituzte. Etsaiak ezarritako mugetatik at begiratzeko eta pentsatzeko gai ez diren herritarrak seriean sortzen dituzte ... Guztia normaltasun egoera batean dagoela sinetsarazi zaie.

Aipaturiko hiru etapa edo fase horiek hemen gauden guztioi oso ezagunak egiten zaizkigu. Egunerokotasunean bizitzen baititugu. Zapalkuntza egoera luzaroan mantendu ahal izateko, indar okupatzaileek nahi eta nahi ez kolaboratzaileak behar dituzte. Batzuek modu kontzientean ematen dute kolaborazio hori; beste askok, ordea, ez dute kolaboratzen dutelako inongo ezagutzarik, dena normaltasunez egiten baitute: hauteskundeetan etsaiak ezarritako instituzio okupatzaileak babesten dituzte eta horien bitartez herri honen zapalkuntza onartzen edo babesten dute, esaterako. Gurean, alderdi edo talde politiko abertzale deituriko horiek ez dute ikuspegi nazionalik, ez dute zapalduak gaudelako inongo kontzientziarik, dena normala da. Hortaz, ez da zapalkuntzaz hitz egiten, eta, ondorioz, ezta independentziaz ere.

Etsaiak ondo baino hobeto daki eraso nola egin; hor daude, prest, egunero-egunero atsedetik hartu gabe pozoia sartu eta sartu. Oinarrizko kontzeptuen inguruan bestelako esanahi bat barneratu digute, eta guk gure errealitatearen inguruan ditugun erreferentziak hankaz gora jarri. Bizikidetzaz, aniztasunaz, bakeaz eta demokraziaz behin eta berriz dihardute. Kontzeptu horiek esanahi oso ezberdina izango dute zapaltzailea edo zapaldua baldin bazara. Esaterako, oso ezberdina da bakean bizi zena zapaltzaile baten ikuspuntutik edo zapaldua den baten ikuspuntutik.

Kolonialismoak ezinbestean erresistentzia mugimenduak sortzen ditu. Estatu guztiek egunerokoa beren izaera edo existentziaren aldarria egiten dute, ondo baitakite inguruan dituzten estatu horiekin duten "bakea elkarbizitzarako biolentzian oinarrituriko oreka bat" baino ez dela. Mugak ondo ezarriak dituzte, eta kontuz modu desegokian igarotzearekin. Hori estatu propioa duten herrietan gertatzen bada, pentsa, estatua bahiturik dugun herrioi zer dagokigun. Egunerokoa erresistentziari uko egiteak gure desagerpena dakar ezinbestean.

Argi izan behar duguna zera da, ez dela munduan herririk bere askatasunari uko egiten dionik. Guk hala erakutsi dugu mende hauetan guztietan zehar. Ez dugu topatu askatasunerako bidea, baina gaur arte iritsi gara. Kolonialismoaren pean dauden herriek bi aukera baino ez dituzte:

- Nazio zapalduaren askatasuna, independentzia. Bere estatu propioa berrezarri.
- Estatu zapaltzailearen garaipena, eta, ondorioz, zapalduaren desagertzea.

Espainiako eta Frantziako estatuak inperialistak dira izatez. Ez dute sekula beraia ez den bestelako herririk onartuko. Ez dute beraien zapalkuntza aitortuko; baliabide guztiak erabiliko dituzte beraien zapalkuntza estaltzeko. Askatasunera bideraturiko edozein egitasmo kriminalizatuko dute. Bai beraiek eta bai beraien kolonialismoak eragindako asimilazioak -hau da, bertako talde politiko deiturikoek- kolonialismoa sostengatuko dute eta sistema inperialista-kolonialista kolokan jar dezakeen edozein mugimendu mespretxatu (kasurik onenean) edo desagerraraziko dute.

Asimilazioa aipatu dudanez, gaurkoan zuen aurrean kolonialismoaz hitz egiteko gonbidapena egin zidatenean, egunerokoan jasaten dugun eraso zein asimilatua dugun biltzen hasi nintzen. Horretarako, egunkari "abertzale" bateko berriei erreparatu nien. Izenburuak, baina, ez dizkizuet esango. Gurean ez dute sekula horrelako kontzepturik erabiltzen, ez dakit modu kontzientean den edo mendeetan jasandako zapalkuntzaren ondorioa:

- Okupazio baten mende luzaro egonez gero, gorrotoa pizten zaizu.
- Armen erakusketa guardia zibilen kuartelean, normalizazio demokratiko eta zibikoaren isla? Ekainak 9.
- Euskaldunak nagusi espainiarren artean. Arraun Lagunak Txapelkun. Espainiar bandera. Ekainak 16.
- El PNV reivindica la ikurriña como símbolo de unión y respeto de una nación en construcción. Uztailak 13.
- El alarde de Antzuola interpretará por última vez el himno de la casa real de los Borbones. Uztailak 20.
- San Mamés y Anoeta serán sedes oficiales del Mundial 2030. Uztailak 22.
- Espainiar selekzioaren garaipena Europako Futbol Txapelketan. Garaipen horrek kalte izugarria egin digu. Izan ere, espainiar naziotasuna indartzeko arma ezin indartsuagoa da. "Hemengoak" diren jokalaririk horien irudiek, haien garaipena ospatuz agertzen diren horiek, espainiar naziotasunaren sentimendua pizten baitie gazteei.

Duela urte batzuk, horrelako izenburuak pentsaezinak ziren gure egunkarietan. Egoerak okerrera egin du nabarmen, eta asimilazio egoeraren eredu txiki bat baino ez dira, egunerokoan barneratzen dizkigutenak.

Halere, ez dut mezu ezkorrik eman nahi. Egoera larria da oso. Ez dugu zapalduak gauden inongo kontzientziarik, baina ez dute lortu gu hiltzea. Umezurtz gaudelako sentimendua hor dago, erreferenteak bilatzen ditugu, zerbaiti eutsi nahi diogu etengabe.

Bizirik jarraitu nahi dugun herri bat gara! Etsaiari hortzak erakutsi behar dizkiogu!!! Haiek baino azkarragoak izan behar dugu, ez gaitezen eror haien trikimailuetan.

Mikel Laboak *Martxa baten lehen notak* abestian zioen bezala: "Inon ez inor menpekorikan, nor bere buruaren jabe, herri guztiok bat eginikan ez gabiltz gerorik gabe. Batek gose diraueno, ez gara gu asetuko, bat inon loturik deino, ez gara libre izango".